



Roberto Moreno eta Peru Canada: Alokairuko Babes Ofizialeko 120 etxebizitza, Parlan



Ibai Gandiaga °








Irudiak eta argazkiak: Arquitectnica estudioa

1992an sortzen da Arquitectnica estudioa, Madrilen, Roberto Moreno arkitektoa (Madril, 1952) izanik bere sortzailea. Urte batzuk geroago, Donostiako Arkitektura Eskolan ikasketak burutu zituen Peru Cañada (Bilbo, 1977) lan-taldeari gehitu zitzaion.



Ohiko solairu oinplanoa.

Besteak beste, etxebizitza publikoaren arloan eskarmentu handiko estudioa dugu Arquitectnica, haien curriculumak erakusten duen bezala: hamaika BOE proiektu burutu dituzte Colmenar Viejon, Parlan, Ciudad Realen, San Blasen...

Aztergai dugun proiektua 2009-2010 bitartean proiektatu eta burutu zen, IVIMAK (Instituto de la Vivienda de Madrid) sustatuta, hain zuzen ere. Programak gazteentzako alokairuzko 120 etxebizitza aurreikusten zituen.

Gazteentzako espazioak pentsatzeko orduan, egileek dimentsio minimoen afera izan zuten gogoan; eraikitako azaleraren eta azal erabilgarriaren arteko ratioa minimora gutxiti nahi izan zuten, 1.38 erlazioa lortuz. Horren ondorioz, batez beste, 2 logelako etxeak 50 m² inguru izango ditu.

Espazio komuna, eta tokiko bereizgarritasunak, modu agerian agertzen dira: etxabea bizitza komunerako askatzen da, eta Madrileko muturreko klimara egokitzeko esfortzua nabarmentzen da (neguan hotz, eta udaran bero, tarteko garai epel luze batekin).

Orientazioa zaintzeaz gain, proiektuak bestelako lanabesak erabiltzen ditu teknika bioklimatikoak txertatzeko; aipagarria da barne-patioaren erabilera, fondo ez hain handiko oinplanoan (10-12 metro), uharka edo aljibe baten erabilera berdeguneak ureztatzeko, tokiko materialen erabilera, edota landaretza patioetan txertatzeko erabakia, airearen tenperatura hilabete sargoritsuetan epeltze aldera.

